



Beasaingo udala

Beasaingo udal aldizkaria

beasain

67 egunez egun

2015eko uztaila



UDAL ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV: 9

EH Bildu: 6

PSE-EE: 2

*Hauteskunde arratsean
geurean genuen antza
herri emaitzei begira
nerbio eta zalantza
orain emaitzen musikan
egin behar dugu dantza
pauso sendoak emanez
berantza eta gorantza
hartarako igual ezin
ta hontarako aliantza
hazi beretik bai dator
fruitua eta arantza
herriak emandako
babes eta konfiantza
badet berriz herriari
itzultzeko esperantza.*

Aitor Aldasoro





>Aitor Aldasoro. Alkatea.

●● Hizkuntza politika

Bi hizkuntza nagusiak bata bestearen aurrean jarri beharrea, elkar aberasteko lan egingo dugu. Kalean euskararen erabilera areagotzeko lehentasuna aisiari emango diogu.

Trabajaremos para que las lenguas estén en igualdad y se alimenten mutuamente.



>Enkarni Arrieta

●● Turismoa, merkataritza eta landa auzoak

Egunerokoa geroz eta pisu gehiago duten arloak dira hauek. Gure neurritik gure neurrira ego-
kitutako turismoa sustatuko dugu. Sare garrantzitsua du Beasainek industria zein merkatal ar-
loan eta tokiko merkataritza ere gehiago indartzea izango dugu helburu.

Asimismo, para que los barrios mantengan su propia identidad estableceremos más vías de comunicación con los y las vecinas.



>Leire Artola.

●● Hazienda, Ondarea eta Udal Antolakuntza

Daukaguna neurtu eta horren araberako gastua bideratzea izango da gure helburua.

El gasto del Ayuntamiento se realizará según su capacidad.

●● Hirigintza

Herritarren arteko harremanak gauzatu eta sendotuko dituen hirigintza bultzatzea dugu helburu.

Vamos a acordar y establecer las bases para las próximas décadas.



> Jon Olano



>Malu Vallés

- ● **Gizarte Ongizatea**

Arangoiti zaharren egoitza handitu, Aspaceko erabiltzaile direnentzat eguneko zentro bat eratu eta Beasainek katalogoko zerbitzu guztiak izatea dugu helburu.

Ampliaremos la residencia Arangoiti, estableceremos un centro de día para personas usuarias de Aspace y pondremos en funcionamiento los programas Cita Alzheimer y Beasain Lagunkoia Sustraietatik.



> Elena Ruiz

- ● **Gazteria eta Kirol Fundazioa**

Kirol azpiegiturei osasun ikuspegitik etekina ateratzea da gure helburua eta boluntarioei esker dagoen elkarte sarea mantendu eta indartzea.

Partiremos de políticas basadas en la formación de jóvenes, el empleo y el ocio.



>Xabier Matarranz

- ● **Kultura**

Nondik gatozen eta zer garen ahaztuko ez duen kultura sustatuko dugu, sormenari lehentasuna emanez.

Impulsaremos la cultura partiendo de lo que somos y de donde venimos, y priorizaremos la creatividad.



> Irma Arnaiz

- ● **Partehartzea, Berdintasuna, Migrazioa eta Hezkuntza**

Urteetan egindako lanari jarraipena emango diogu gizarteak dituen abiadura ezberdinak kontuan hartuz.

Estableceremos objetivos para poder avanzar según los diferentes ritmos de la sociedad.



>Edorta Diaz

- ● **Zerbitzuak, landa ingurua eta ingurumena**

Argiteria publiko, kale garbiketa, zabor bilketa, saneamendu, edateko uren hornidura, goitik beherako zein zeharkako seinalezatze, espalo zein hiri altzarien zerbitzuen kalitatea hobetzea izango dugu helburu.

Mejoraremos los servicios de alumbrado público, limpieza de calles, recogida de basuras, abastecimiento de agua potable, señalización, aceras y mobiliario urbano.



Zergen egutegi fiskala

Hiru hilabetetik behin ordaindu beharreko azokako tasa ordaintzeko borondatezko epea abuztuaren 31n amaituko da. Helbideratutako ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira.

El 31 de agosto finalizará el plazo para realizar el pago de la tasa del tercer trimestre de la feria.

Saria Murumendirentzat

Beasaingo Murumendi ikastetxeak Ashoka saria jaso du, Amara-Berri Ikastetxeko irakasle eta ikasleak eta Amara Berri Sareko beste hainbat ikastetxeetako ordezkariekin batera. Aldaketen aurrean berritzaile direnen lanari aitortza egiten dio Ashoka erakundeak.

El centro educativo Murumendi ha recibido, junto con el profesorado y alumnado del colegio Amara Berri y otros representantes de la red de centros Amara Berri, el premio a emprendedores otorgada por la asociación Ashoka.

Berdintasun Foroaren azken saioa - Foro por la Igualdad

Ekainak 29 Junio

> 17:00-18:30 udaletxeko Batzar Aretoan

*Mokadutxoa egongo da.



Ehunmilak > 168km

Uztailak 10 -11-12
Irteera: ostirala, uztailak 10,
18:00etan



G2H > 88km

Uztailak 10 -11
Irteera: ostirala, uztailak 10,
23:00etan



MMM > 42km

Uztailak 12
Irteera: igandea, uztailak 12,
9:00etan

***LASTERKETEN HASIERA ETA AMAIERA PUNTUA LOINAZKO SAN MARTIN PLAZAN EGONGO DA.**

APARKALEKUAK

- > Renfeko nasa
- > CAF (Senpere)

CORTES DE TRAFIKO MOZKETAK

- > Igartza Oleta 2tik 6ra
- > Zapatari
- > Mendeurren Etorbidea
- > Joan Iturralde kalea

*Soilik garaheetara sartu eta irteteko aukera izango da.

*Únicamente se podrá acceder a los garajes.